**BAZTAN BALLEKO BATZAR NAGUSIA**

**2012KO EKAINAREN 12KO**
**EZ-OHIKO BILKURA**

**JUNTA GENERAL DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN**

**SESION EXTRAORDINARIA**
**DE 12 DE JUNIO DE 2012**

**BERTARATUTAKO BATZARKIDEAK**
***SEÑORES VOCALES ASISTENTES***

**ZINEGOTZIAK/ *CONCEJALES*:**
GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE
MIKEL ORTEGA ARRAZTOA
MAITANE MARITORENA AZKARATE
Mª TERESA OTEIZA APECECHE
JON ELIZETXE BIDEGARAI
FLORENTINO GOÑI TELLECHEA
IÑIGO ITURRALDE ELICECHE

**HERRIETAKO ALKATEAK (JURATUAK) / *JURADOS:***
JULIAN RECALDE IRIGOYEN - AMAIUR
JUAN CRUZ IRIARTE BAÑEZ - ARIZKUN
SOTERO ETXANDI JUANIKOTENA - ARRAIOZ
CESAREO GARTXITORENA ETXEBERRIA - BERROETA
XABIER TORRES LETONA - ELIZONDO
XABIER OSPITAL AGERREBERE - ERRATZU
LEONCIO IRUNGARAY ELIZALDE– GARTZAIN
PEDRO JESÚS OBREGOZO ISTILART-IRURITA
JESUS ANGEL GARCIA JIMENEZ - LEKAROZ
JUANA Mª HUALDE ZABALETA - ORONOZ
PABLO CENOZ GARAICOECHEA – ZIGA

**JUNTEROAK / *JUNTEROS:***
ION ALCASENA IRUNGARAY (BAZTANGOIZA)
MARTIN Mª PLAZA ZUGARRAMURDI (ELIZONDO)
Mª ARANZAZU ZELAIA TXOKARRO (BASABURUA)

**EZ DIRA BERTARATU**
***NO HAN ASISTIDO:***
BEGOÑA SANZBERRO ITURRIRIA
MARIA CARMEN IRIBARREN IRIBARREN
MARIA ISABEL OLAVE BALLARENA
LEOPOLDO JAEN SOBRINO
JOSE MARÍA GARMENDIA ARIZMENDI
MAITE JULIANA ITURRE LLANO
BITTOR ELIZAGOYEN ECHEGARAY (ERBEREA)
LUIS ROLDAN ASTIZ - ALMANDOZ
ASIER MARITORENA AZKARATE – ANIZ
MIGUEL Mª ARIZTIA MENDIBURU- AZPILKUETA
PEDRO GOYENECHE ISTILART - ELBETE

Elizondon dagoen Baztango Udaletxean, **2012ko ekainaren 12an, arratsaldeko hiruretan**, GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE Alkate-Presidentearen pean eta legezko deialdia aitzinetik egina, ondoan aipatu Batzarkideak bertaratu dira, bai eta Batzarkideak ez diren zenbait Mendi Ordezkari, Batzarkideen laguntzaile gisa. Eta bertan IULEN URBIOLA LOYARTE Idazkari jauna zelarik eta Lohitzune NUIN AMATRIA Euskara Teknikariak lagunduta, **BAZTAN BALLEKO BATZAR NAGUSIA** bildu zen, **ez-ohiko** batzarra lehendabiziko deialdian egin asmoz.

Presidente anderea bilkura hasiko zela adierazi zuen, bilkura publikoa izanik eta jarraian Gai-Zerrendan bildutako aferak eztabaidatzeari ekin zitzaion, ondoren azaltzen diren akordioak hartu zirelarik.

*En la Casa Consistorial del Noble Valle y Universidad de Baztan, sita en el Lugar de Elizondo, siendo las **quince horas** del día **12 de junio de 2012**, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Dª GARBIÑE ELIZEGI NARBARTE y previa su citación en legal forma asisten los señores Vocales relacionados al margen, así como algunos Comisionados de Montes no Vocales, en calidad de auxiliares de los Sres. Junteros. Y estando presente el Secretario D. IULEN URBIOLA LOYARTE y de la Técnico de Euskera Dª Lohitzune NUIN AMATRIA, se reunió **LA JUNTA GENERAL DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN** al objeto de celebrar sesión **extraordinaria** en primera convocatoria.*

*La Sra. Presidenta manifestó que comenzaba la sesión, siendo la misma pública, procediéndose seguidamente a tratar los asuntos comprendidos en el Orden del Día y siendo adoptados los acuerdos que seguidamente se indican:*

**1.- OSASUNGINTZAKO MURRIZKETAK ETA HORREN ONDORIOAK BAZTANEN**.
Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta eta saio honi dagokion soinu fitxategian bildutako eztabaida ondoren, Xabier Torresek, Elizondoko Juratuak, ondoko idazkiaren onespena proposatzen du.

“Berriki jakin dugu Nafar Gobernuak Baztango Osasun taldeari bere *hobekuntza plana* aurkeztu diola. Honen arabera Baztanen dauden bi *Etengabeko Arreta Puntuetako* bat desagertuko da, Oronozkoa, hain zuzen. Orain dela hiru urte ere antzeko zerbait

***1.- RECORTES EN SANIDAD Y SUS CONSECUENCIAS EN BAZTAN.***
*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, por parte del alcalde jurado de Elizondo, Xabier Torres, y tras un breve debate recogido en el archivo de audio de la presente sesión, se propone la aprobación del siguiente escrito por parte de la Junta General.*
*“Recientemente, hemos tenido conocimiento de que el Gobierno de Navarra ha presentado al equipo sanitario de Baztan su “plan de mejora”. Según este plan, desaparecería uno de los dos puntos de atención continua existentes en Baztan, el de Oronoz.*

planteatu zuten, baina hondarrean bertan behera gelditu zen. Orduan bezala, orain ere, Baztango juntero eta alkateok, honako hau adierazi nahi dugu:

1. Lehenik eta behin, neurri honek sortzen digun kezka agertu nahi dugu. Gure ustez, osasuna arras gai garrantzitsua da eta bertan ez dira baliabideak murriztu behar.
Kontuan hartu behar da Baztan Nafarroako udalerri haundiena dela eta bere mugen artean 375 kilometro karratu biltzen dituela. Horretaz gainera, populazioa arras sakabanatua dago 15 herri eta hainbat eta hainbat baserriren artean. Aunitzetan mediku eta erizainek distantzia haundiak egin behar izaten dituzte eta gainera, sarritan, bideak ez daude asfaltaturik eta kilometro anitz egin behar izaten dituzte bide zakarretan.

2. Bigarrena, herrietako kontsultak pixkanaka pixkanaka ixten ari dira eta gero eta desplazamendu gehiago eta luzeagoak egitera behartuak gaude. Oinarrizko zerbitzuak behar eta nahi ditugu. Ditugun zerbitzuak hobetzeko borrokatuko dugu, baina ez dugu onartuko ditugunak murriztea.

3. Hirugarrena, Oronozko osasun zentroa leku estrategikoan kokatua dago. Mendialdeko udalen erdigunea da (Malerreka, Baztan, Bortziriak) eta nazional 121 errepide bazterrean dago. Errepide honek duen trafikoa haundia da eta, zoritxarrez, istripuak maiz gertatzen dira. Zentro honetan dagoen zerbitzua baztandarrei atenditzeaz gain, lagungarria izan daiteke trafiko ezbeharretan edota ondoko herrien zerbitzuak eskasten direnean. Horregatik zerbitzu hau ez dugu bakarrik behar beharrezkoa ikusten, zentro honek dituen errekurtsoak hobetu behar direla uste dugu.

4. Laugarrena, guardia zibila eta foruzainen jarrera lotsagarria salatu nahi dugu. Pasa den maiatzaren 23an Doneztebeko Udalera Marta Vera Osasun kontseilariaren bisita zela eta, han bildutako alkate zein zinegotzioi bultzaka eta oihuka galarazteagatik egin nahi izan genuen errepide mozketa sinbolikoa, osasungintzan gure eskualdean ere egin nahi diren murrizketen harira. Poliziek herritarren defentsan ihardun beharrean boteredunen zerbitzurako soilik lan egiten dutela erakutsi digute berriz ere. Hala nola Doneztebeko San Migel alkatearen jarrera ere salatu nahi dugu, ez uzteagatik aipatu alkate eta zinegotzioi udal barrura sartzen, kontseilariarekin hitzegiteko.

5. Bosgarrena eta azkena, Baztan Balleko sinatzen dugun alkateok eta lau kuarteletako Batzarkideok, Nafarroako Gobernuari publikoki eskatzen diogu aipatu *Etengabeko Arreta Puntua* orain dagoen bezala uztea."

Alkateak bozkatzera deitzen du.
Aldekoak 21
Kontrakoak 0
Abstentzioa 0

**Proposamena onartzen da.**

**2.- IRAKASKUNTZA ETA GIZARTE ARLOKO MURRIZKETAK BAZTANEN.**
Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta eta saio honi dagokion soinu fitxategian bildutako eztabaida ondoren, Xabier Torresek, Elizondoko Juratuak, ondoko idazkiaren

*Hace tres años plantearen algo similar, que finalmente no se llevó a cabo. Como entonces, los junteros y alcaldes de Baztan queremos señalar lo siguiente:*
*1.- En primer lugar, queremos dar a conocer la preocupación que nos genera esta medida. En nuestra opinión, la salud es un tema de gran importancia y, por lo tanto, en el que no caben recortes.*
*Debemos tener en cuenta que Baztan es el municipio más extenso de Navarra con 375 km2 de superficie. Además, la dispersión de la población es muy significativa, repartida entre 15 pueblos e innumerables caseríos. En infinidad de ocasiones, los médicos y enfermeras deben recorrer grandes distancias con sus coches particulares por caminos en malas condiciones que no suelen estar asfaltados.*
*2.- En segundo lugar, poco a poco se están cerrando las consultas de los pueblos, y por esta razón nos vemos obligados a realizar cada vez más numerosos y largos desplazamientos. Queremos y necesitamos los servicios básicos, lucharemos por las mejoras de los servicios de los que ya disponemos, y no admitiremos recortes en ellos.*
*3.- En tercer lugar, el centro de salud de Oronoz está situado en un lugar estratégico. Es el punto central de la zona montañosa (Malerreka, Baztan, Bortziriak) y se sitúa junto a la N-121. El tráfico que soporta esta carretera es inmenso y, por desgracia, ocurren innumerables accidentes. Este centro, además de atender a los baztandarras, ha de servir para atender los accidentes de tráfico o para cubrir la falta de servicios de los pueblos cercanos. Por todo ello, este servicio no sólo es necesario, sino que se deben de mejorar los recursos de los que dispone.*
*4.- En cuarto lugar, queremos denunciar la actitud vergonzosa de policía foral y guardia civil por intentar evitar por medio de gritos y empujones el corte de tráfico de carácter simbólico que con el objetivo de denunciar los recortes que se quieren hacer en materia de salud, deseaban llevar a cabo los/as alcaldes/as y concejales/as reunidos en Santesteban el pasado 23 de mayo, con motivo de la visita de la consejera de salud, Marta Vera, realizó a ese Ayuntamiento. Los policías, lejos de defender al/a ciudadano/a, dejaron patente una vez más que trabajan al servicio de los/as poderosos/as. A su vez, queremos denunciar la actitud del alcalde de Santesteban, San Miguel, por no permitir a los/as alcaldes/as y concejales/as acceder al ayuntamiento para hablar con la consejera.*
*5.- Quinto y último, los/as alcaldes/as firmantes y los junteros de los cuatro cuarteles de Baztan, solicitamos públicamente al Gobierno de Navarra que mantenga el punto de atención contínua."*

*Alcaldía llama a votar.*
*A favor 21*
*En contra 0*
*Abstención 0*

***Se acepta la propuesta.***

***2.- RECORTES EN EDUCACIÓN Y ÁREA SOCIAL EN BAZTAN.***
*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, por parte del alcalde jurado de Elizondo, Xabier Torres, y tras un breve debate recogido en el*

onespena proposatzen du.

"Espekulazio finantziero arriskutsuek sortu dituzten zor pribatuak estaltzeko diru publikoa erabiltzen ari dira. Egoera honetan murrizketa izugarriak ari dira egiten sektore publikoan. Osasuna, hezkuntza eta babes sozialerako aurrekontuak murriztu, prestazio sozialak, menpekotasunari laguntza eta langabeziaren babesa desagertu, hezkuntza gelako kopuruak handitu, osasun zentroetako zerbitzuak murriztu; diru publikoa desbideratzen ari da entitate bakar batzuk, gure osasuna eta gure zaintzako oinarrizko eskubideen kontura negozia egin dezaten.
Orain arte Nafarroan etorkizunaren zutabe nagusietako bat hezkuntza publikoa izan da, eta aurrerantzean ere hala izaten jarraitzea nahi dugu.

Dagoeneko hainbat murrizketa ezagutu ditugu:
.- Zenbait diru-laguntza desagertu dira: funtzionamendu gastuetarako % 20-30 bitartean.
.- Eskolaz kanpoko ekintzetarako laguntza desagertzea.
.- Duela bi urte irakasleen soldataren jaitsiera (%7 inguru).
.- Bajan dauden irakasleen ordezkoak ez dituzte bidaltzen 15 egun pasatu arte.
.- Guraso elkarteei diru-laguntzak ezabatzea. e.a.

Hemendik aurrera aplikatuko dituztenak:
.- Gela bakoitzeko ikasle kopurua handitzea (orain bataz bestekoa 20-25, heldu den ikasturtean 32 izatera irits daitezke).
.- Irakasleek ikasleekin duten zuzeneko eskola ordu kopurua handitzea
.- Irakasleek orain arte urtero egiten dituzten formazio ikastaroak murriztea edo guztiz kentzea…
.- Irakasleen laguntza zentroen desagerpena.

Neurri guzti hauek eragingo dituzten ondorioak begi bistakoak dira:
.- Irakasleen kaleratzeak (500etik gora)
.- Hezkuntza kalitatearen beherakada.
.- Erretiro gehienak ez dira ordezkatuko.
.- Landa eremuko eskola txikien etorkizuna arriskuan dago.
.- Unibertsitateko tasak proportziorik gabe igoko dira eta baliabide ekonomiko gutxi duten ikasleak kanpoan geldituko dira.
.- Lanbide Heziketaren eta zikloen eguneratze prozesua geldituko da.

Horregatik, gaur bildutako Baztango Batzar Nagusiak eskatzen dio Nafarroako Gobernuari, Nafarroak dituen eskumenetan oinarriturik ez ditzala indarrean jarri aipatutako murrizketak.

Gure etorkizuna, baztandarrena eta Nafarroarena jokoan dagoelako, hezkuntza publiko zaindu behar dugu."

Alkateak bozkatzera deitzen du.
Aldekoak 21
Kontrakoak 0
Abstentzioa 0

**Proposamena onartzen da.**

*archivo de audio de la presente sesión, se propone la aprobación del siguiente escrito por parte de la Junta General.*
*"La especulación financiera ha conllevado que la deuda privada se cubra con el dinero público. Esta situación esta conllevando recortes en sector público. Recortes en salud, educación y protección social; desaparición de las prestaciones sociales, la ayuda a la dependencia y la ayuda al desempleo, aumenta el ratio por aula en educación, recortan los servicios en los centros de salud. Se está desviando el dinero público a unas entidades para, a costa de nuestra salud y de nuestros derechos, hacer negocio.*
*Hasta hora la educación pública en Navarra ha sido un valor fundamental y queremos que siga.*

*De momento hemos sabido de algunos recortes:*
*.- Varias ayudas económicas han desaparecido: entre el 20-30% para gastos de funcionamiento.*
*.- Desaparición de la ayuda a las actividades extraescolares.*
*.- Hace 2 años, el salario del profesorardo bajó un 7%.*
*.- Tardan 15 días en sustituir al profesorado de baja.*
*.- Eliminación las ayudas a las asociaciones de padres, etc.*

*Los recortes que aplicarán de aquí adelante:*
*.- Aumento del ratio de alumnado por aula(el promedio hasta ahora era 20-25, a partir del curso que viene pueden llegan a ser 32)*
*.- Subida de las horas lectivas de los/as profesores/as.*
*.- Eliminación o recorte de la formación para el profesorado.*
*.- Desaparición de los centros de ayuda al profesorado.*

*Los resultados de estas medidas serán obvios:*
*.- Despido de profesorado (a partir de 500)*
*.- Baja en la calidad de la enseñanza.*
*.- La mayoría de las jubilaciones no serán cubiertas.*
*.- Las escuelas unitarias de Baztan están en peligro*
*.- Las tasas de universidades subirán y los/as estudiantes que tengan escasos recursos quedarán excluídos/as.*
*.- El proceso de actualización de la formación profesional y de los ciclos se detendrá.*

*Por eso, la Junta General de Baztan solicita al Gobierno de Navarra que, atendiendo a sus competencias, no ponga en marcha los mencionados recortes.*

*Porque el futuro de los/as baztandarras y navarros/as está en juego, debemos cuidar nuestra educación pública."*

*Alcaldía llama a votar*
*A favor 21*
*En contra 0*
*Abstención 0*

***Se acepta la propuesta.***

**3.- BAZTANERA BIDERATU BEHARREKO INBERTSIOEN ETA ZEHAZKI "LAU URTEKO PLANEAN" EGIN DIREN MURRIZKETAK.**

***3.- RECORTES EN LAS INVERSIONES A REALIZAR EN BAZTAN, Y CONCRETAMENTE EN EL "PLAN CUATRIENAL".***

Aurrekariak azalduta, arrazoiak eta ondorioak aurkeztuta eta saio honi dagokion soinu fitxategian bildutako eztabaida ondoren, Xabier Torresek, Elizondoko Juratuak, ondoko idazkiaren onespena proposatzen du:

“Ez-ohiko Batzar Nagusia deitu dugunok, Nafarroako Gobernuak iragarri dituen murrizketak eta Lau urteko Plana akitzeko dagoela kontuan hartuta, honako hau eskatzen dugu:

1. Lau urteko Planaren barnean dauden egitasmoei buruzko informazioa ematea eta Nafarroako Gobernuak eta Baztango Udalak hartutako konpromezuen berri ematea.
2. Lau urteko Planean agindutako egitasmoak mantentzea. Ur horniketa da bertze batzuen artean, Baztanek duen premiazko beharra Nafarroako udalerri handiena dela eta 15 herri dituela kontuan hartuta.”

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, por parte del alcalde jurado de Elizondo, Xabier Torres, y tras un breve debate recogido en el archivo de audio de la presente sesión, se propone la aprobación del siguiente escrito por parte de la Junta General.*

*“Los convocantes de la Junta General extraordinaria, ante los recortes que viene anunciando el Gobierno de Navarra, y teniendo en cuenta que el Plan Cuatrienal está a punto de finalizar, solicitamos:*

*1. Información sobre las actuaciones incluidas en el Plan Cuatrienal y los compromisos adquiridos por el Gobierno de Navarra y el Ayuntamiento de Baztan.*

*Que se mantengan las actuaciones comprometidas por parte del Gobierno de Navarra en el Plan Cuatrienal, siendo el abastecimiento de aguas, entre otras, una necesidad urgente en Baztan, teniendo en cuenta su extensión geográfica (la mayor de Navarra) y que son 15 pueblos.”*

Alkateak bozkatzera deitzen du.
Aldekoak 21
Kontrakoak 0
Abstentzioa 0

*Alcaldía llama a votar*
*A favor 21*
*En contra 0*
*Abstención 0*

**Proposamena onartzen da.**

***Se acepta la propuesta.***

**4.- ADIERAZPENA**

Alkatetzak, gai-zerrendatik kanpo, jakinarazten du espedientean 4. puntu gisa agertzen den adiezpenaren eta, halaber, “Etorkizunaren alde, neurri murriztatzailerik ez” lelopean ekainaren 23an Elizondon izanen den manifestazioaren aldeko atxikimendua eskatzen dela.
Ahobatez onartzen da gaia tratatzea.
Alkateak atxikimendua adierazteari bai ala ez bozkatzera deitzen du.
Aldekoak 21
Kontrakoak 0
Abstentzioa 0

**Batzar Nagusiak bere atxikimendua adierazten du.**

***4.- DECLARACIÓN***

*Alcaldía expone que fuera del orden del día se solicita la adhesión a la declaración, adjunta al expediente como nímero 4, así como a la convocatoria de la manifestación a celebrar en Elizondo el día 23 de junio a las 12:00 bajo el lema “Etorkizunaren alde, neurri murriztatzailerik ez”.*
*Por unanimidad se acepta tratar el punto.*
*Alcaldía llama a votar la adhesión o no a la declaracion.*
*A favor 21*
*En contra 0*
*Abstención 0*

***La Junta General muestra su adhesión.***

**Ondoren Lehendakariak bilkurari amaiera ematen dio.**

***Acto seguido la Sra. Presidenta levanta la sesión.***

Jasota gera dadin eta beharrezko ondorioetarako honako Akta hau legezkoa egiten da, bilkura hasieran adierazitako egunean, 16:00etan amaiera emanez, Alkate-Presidentearen oniritzia izanik eta zigilaturik, neuk Idazkariak fede emanda. Elizondon, Baztanen, 2012ko ekainaren 12an.

*Y no habiendo más asuntos que tratar para constancia y efectos consiguientes se formaliza la presente Acta, levantándose la sesión a las 16:00 horas del día al principio indicado, llevando el Vº Bº de la Sra. Alcaldesa-Presidenta y sellada en forma, de lo que yo el Secretario doy fe. En Elizondo, Valle de Baztan, a 12 de junio de 2012.*

ONIRITZIA / *Vº Bº*
ALKATE- PRESIDENTEA
*ALCALDESA-PRESIDENTA*

IDAZKARIA
*EL SECRETARIO*